

Euskal ekonomiaren bilakaera 2020IIIH

2020ko abenduaren 9a



kutxabank
empresas

1

Laburpena

2

Euskal ekonomia

BPGd-a
Barne eskaria
Kanpo sektorea
Lan-merkatua
Inflazioa
Sektore publikoa
Finantza-sektorea
Adierazleak

3

Ingurunea

4

Aurreikuspenak

1. Euskal ekonomia 2020IIIHn

20IIIHn, EAEko **BPGd**-ak % **7,5** egin du behera (u/u), eta hazkunderan intentsitate apur bat berreskuratu badu ere, maila negatiboetan dago oraindik. Europako ekonomien batez bestekotik gora egon da uzkuertze hau, euskal ekonomiaren egiturazko ezaugarrien ondorioz. Izan ere, bere inguruneari eta batez ere EBri oso lotuta dagoen ekonomia baita eta, haren irekitasun handiaren eraginpean dagoenez, munduko ekonomiaren bat-bateko geldialdiaren ondorioak pairatu ditu.

Euskal ekonomian apaldu egin da eskariaren osagaien jaitsiera, baina egoera itxaropentsua izatetik urrun dago oraindik. **Barne-eskaria (-% 7,2)** 9,2op murriztu da 2019ko hiruhileko berarekin alderatuta. Kanpo-sektoreak 0,3op-ko ekarpen negatiboa egin du, **Esportazioen** uzkuertzea **(-% 15,5)** **Inportazioena** baino apur bat handiagoa izan baita **(-% 14,8)**. Kontsumo publikoa da, hein batean, eskariaren ahuldadea orekatu duen bakarra. Suspertzearen inguruan zalantzak dira oraindik nagusi.



Eskaintzak antzeko joera izan du, eta bere osagai nagusiak hondoratu egin dira. Alarma-egoerak eta konfinamenduak eragin ikaragarria izan dute ekonomiarengan, aurretik ikusi gabeko erorketekin **Industrial (-% 9,5)**, **Eraikuntzan (-% 9,3)** eta **Zerbitzuetan (-% 6,5)**. Enpresen errentagarritasunak jasandako kaltea handia izan da eta, haren ondorioz, zorpetzea handitu eta kaudimena hondatu egin da.

EAEko Kontu Ekonomikoen arabera, **20IIIHko lan-okupazioa 916.000 lanpostutik** gora dago ozta-ozta, azken urtean % **6,2** behera egin ondoren. Kopuru absolutuetan, enpleguan egindako murrizketek datu hauek utzi dizkigute: **60.783 langile** gutxiago; horietatik 39.811 **Zerbitzuen** sektorekoak dira, 18.660 **Industrialakoak** eta 2.193 **Eraikuntzakoak**. **PRA**ren arabera, **langabezia-tasa % 10**ekoa izan zen 20IIIHn.

2020ko urrira arte metatutako **diru-bilketan, 11,217M** eurokoa, % **12**ko jaitsiera ikus daiteke, iazko hiruhileko berean gertatutakoa baino txikiagoa. Diru-sarreraren arabera, 4.436M€ PFEZtik datoz **(-% 1,6)** eta 4.060M€ **(-% 17,8)** BEZaren bidez jasotakotik. Bi horiek dira diru-sarreraren modalitate nagusia. Hirugarren hiruhilekoan, EAEko zorpetzea % 14,9ra igo da, Covid-ari aurre egiteko sektore publikoak martxan jarritako zenbait laguntza-politikaren ondorioz.


2. Erreakzio txiki bat paregabeko hondoratzearen ondoren

Tasas de variación del PIB de la C.A. de Euskadi (%)




20IIIHn, EAEko BPGd-ak % 7,5 egin du behera (u/u), eta hazkundean intentsitate apur bat berreskuratu badu ere, maila negatiboetan dago oraindik. Europako ekonomien batez bestekotik gora egon da uzkuertze hau, euskal ekonomiaren egiturazko ezaugarrien ondorioz. Izan ere, bere inguruneari oso lotuta dagoen ekonomia baita eta, haren irekitasun handiaren eraginpean dagoenez, munduko ekonomiaren bat-bateko geldialdiaren ondorioak pairatu ditu.

2. Euskal ekonomia: hondoa jotzetik dator



Hirugarren hiruhilekoan, euskal ekonomian apaldu egin da eskariaren osagaien jaitsiera, baina egoera itxaropentsua izatetik urrun dago oraindik. **Barne-eskaria (-% 7,2)** 9,2op murriztu da 2019ko hiruhileko berarekin alderatuta. Kanpo-sektoreak 0,3op-ko ekarpen negatiboa egin du, **Esportazioen** uzkertzea (-% 15,5) **Inportazioena** baino apur bat handiagoa izan baita (-% 14,8). Kontsumo publikoa da, hein batean, eskariaren ahuldadea orekatu duen bakarra. Suspertzearen inguruan zalantzak dira oraindik nagusi.


2. Zerbitzuak eta Industria, kaltetuenak



Iturria: Eustat, gure datuak

Eskaintzak antzeko joera izan du, eta bere osagai nagusiak hondoratu egin dira. Alarma-egoerak eta konfinamenduak eragin ikaragarria izan dute ekonomiarengan, aurretik ikusi gabeko erorketekin **Industrialian** (-% 9,5), **Eraikuntzan** (-% 9,3) eta **Zerbitzuetan** (-% 6,5). Enpresen errentagarritasunak jasandako kaltea handia izan da eta, haren ondorioz, zorpetzea handitu eta kaudimena hondatu egin da.


2. ZIUtik ateratzeko bidean



PIB Trimestral (demanda)	2019		2020		
	III	IV	I	II	III
GASTO EN CONSUMO FINAL	1,9	1,7	-3,0	-15,4	-5,9
-Gasto en consumo final de los hogares e ISFLSH	1,8	1,5	-4,8	-20,3	-8,5
-Gasto en consumo final de las AAPP	2,2	2,2	4,1	-3,0	3,6
FORMACIÓN BRUTA DE CAPITAL	2,2	2,4	-3,6	-23,0	-11,4
-Formación Bruta de Capital Fijo en Bienes de Equipo	0,8	2,9	-5,0	-30,1	-15,5
DEMANDA INTERNA	2,0	1,9	-3,1	-17,2	-7,2
EXPORTACIONES DE BIENES Y SERVICIOS	-0,9	1,3	-7,5	-30,1	-15,5
IMPORTACIONES DE BIENES Y SERVICIOS	-1,0	0,9	-7,3	-26,6	-14,8
PRODUCTO INTERIOR BRUTO a precios de mercado	2,1	2,2	-3,2	-19,5	-7,5

Barne-eskaria etxeko errenten jaitsieraren, langabezia-tasen igoeraren eta enpresetako ABEE-en orokortzearen eskutik doa. Horrek guztiak etxeko kontsumoaren gastua baldintzatzen du (**Azken kontsumoa**, -% 8,5) eta **Kapitalaren Eratze Gordinean** (% -15,5) islatzen den enpresen inbertsio-erabakiak atzeratzen ditu. **Sektore Publikoaren** (% 3,6) ahalegin kontraziklikoak arintzen du pixka bat egoera.





2. Eragin orokorra mundu osoan



Iturria: Eustat

Esportazioetan (-% 15,5) izandako beherakada **Inportazioena (-% 14,8)** baino handiagoa izan denez, kanpo-sektoreak hazkunderari egindako ekarpena negatiboa izan da hirugarren hiruhilekoan. Hala ere, atzerakada aurrekoetan baino apur bat txikiagoa izan da, eta 2,3op-ko murrizketatik **0,3op**-ko murrizketara igaro gara.

2. Errebotearen hasiera




Iturria: Eustat


Hirugarren hiruhilekoaren ezaugarri nagusia nola-halako suspertze baten abiaraztea izan da. Funtsean, eskaintzaren sektore guztien jaitsiera apalagoa izan da, oraindik hondoa jo ez duela ematen duen lehen sektorean izan ezik. Gauzak horrela, **Industria** dago jaitsieren buruan (-% 9,5); haren atzetik datoz **Eraikuntza** (-% 9,3) eta **Zerbitzuak** (-% 6,5).

2. Eragin negatibo handia Zerbitzuetan

Estructura y Variación PIB IIIT20




Aportación al PIB IIIT20 (pp)



Iturria: Eustat, gure datuak

20IIIHn, **Zerbitzuen** sektorea izan da nagusia, eta % **62,3**ko ekarpena egin dio EAEko BPGd-ari. Termino errealetan % **6,5** uzurtu ondoren, BPGd-aren atzeraldi handiaren arrazoi nagusia da, **-4,1op**-rekin, Industriari egotzi dakioken erorketaren ia halako bi. **Eraikuntzak**, % **5,4**ko pisuarekin, **-9,3** egin du atzera, eta batera **-0,5op kendu dizkio hazkunderari**; azkenik, **Industriak**, euskal BPGd-aren % **21,4**arekin, % **9,5** egin du behera termino errealetan, eta **-2,0op**-ko koska galdu du. Hein handi batean, zerbitzuen sektoreari egotzi ahal zaio hazkunderan bizitako eragin negatiboaren ardura, konfinamenduan gehien sufritu duen sektorea izan baita.


2. Produktibitate apalagoa




Industria izan ohi da **enplegu bakoitzeko** produktibitate kalkulurik onena duen sektorea; 20IIIHn, BPGd-aren eta enpleguaren egiturari begiratuta, BPGd-aren % **20,7** dela ikus dezakegu eta enpleguaren ehuneko beraren jabe dela. Lehen sektorea da, nabarmen, BPGd-aren sorreran pisu espezifiko gutxien duena, eta bere produktibitatea ere beste sektoreena baino apalagoa da; Eraikuntzaren eta Zerbitzuen produktibitatea, aldiz, antzeko tarteko mailetan dago.

2. Langabezia-tasa % 10ean mantendu da, AEEE-en ondorioz

Tasa de paro: IIIT 10,0 %





60.783 empleados menos que en IIIT19



Iturria: Kontu ekonomikoak. EPA. Eustat.

EAEko Kontu Ekonomikoen arabera, **20IIHko lan-okupazioa 916.000 lanpostutik** gora dago ozta-ozta, azken urtean % **6,2** behera egin ondoren. Kopuru absolutuetan, enpleguan egindako murrizketek datu hauek utzi dizkigute: **60.783 langile** gutxiago; horietatik 39.811 **Zerbitzuen** sektorekoak dira, 18.660 **Industriakoak** eta 2.193 **Eraikuntzakoak**. **PRA**ren arabera, 20IIHn, **langabezia-tasa % 10**ekoa izan da, baina **ABEE**aren ondorioz apur bat leunduta dago.

2. Konfinamenduak kontu publikoei kalte egin dien arren, tonu positiboari eutsi dote




2020ko urrira arte metatutako **diru-bilketan, 11,217M** eurokoa, % **12**ko jaitsiera ikus daiteke, iazko hiruhileko berean gertatutakoa baino txikiagoa. Diru-sarrera motaren arabera, 4.436M€ PFEZtik datoz (-% 1,6) eta 4.060M€ (-% 17,8) BEZaren bidez jasotakotik. Bi horiek dira diru-sarreraren modalitate nagusia. Hirugarren hiruhilekoan, EAEko zorpetzea % 14,9ra igo da, Covid-ari aurre egiteko sektore publikoak martxan jarritako zenbait laguntza-politikaren ondorioz.

Finantzaketa-gaitasunari dagokionez, 5.765M euroko baliabide ez-finantzarioekin eta 5.556M euroko enpleguekin, euskal sektore publikoak **209M euroko superabita** dauka 2020IIIHn, bigarren hiruhilekoan jardura apalagoa izan bada ere, konfinamenduaren ondorioz.


2. Abal publikoek kreditua bultzatu dute eta ziurgabetasunak gordailuen igoera bultzatu du

Txostenaren itxieran BdEk argitaratutako azken datuak: 2020ko ekaina

Créditos S. Privado



Depósitos S. Privado




Neurriak arintzearekin, **kreditu pribatua** berraktibatu egin da, % **2,4 (ESP)** eta % **1,3raino (EAE)**, 2008an finantza-krisiaren aurretik zeuden eta ordutik bilakaera egonkorra izan duten tasetatik gertu. Gertakari honen atzean abal publikoak daude (BdEren arabera, enpresen kreditu berrien % 41k Estatuaren abala dauka). Osasun krisiak ere ziurgabetasuna areagotu du eta, horren aurrean, agenteek gordailuetako saldo erabilgarriak handitu dituzte, gerta daitezkeen ezustekoei aurre egiteko. Hartara, **gordailu pribatuek % 6,8 (ESP)** eta % **5,7 (EAE)** egin dute gora.

2. Gordailuek eta kreditu pribatuek gora egin dute; lehenak, gehiago

Txostenaren itxieran BdEk argitaratutako azken datuak: 2020ko ekaina



% de variación de Créditos y Depósitos S. Privado



Iturria: BdE

Sektore pribatuaren gordailuen saldoa (85.093 M€; +% 5,7) Kreditu pribatuen gainera jarri da (63.210 M€; +% 1,3) ekainean. 29.884 M eurokoa da aldea eta hazkundearen bidean dago oraindik. Kreditu pribatuek gordailu pribatuetan duten pisua % 74,3koa da EAEn (% 91,6koa da, aldiz, Espainian).

2. Etxebizitza-hipotekak: hazkunde neurritsua, testuingurua gorabehera




Iturria: INE

Kopuru metatuei begiraten badiogu, Espainiako hipoteken bolumenaren suspertzea eta EAEkoaren egonkortzea kontuan hartuta, hazkunde arin baterako joera ikus daiteke hala kasu batean nola bestean.

3. Berankortasuna: hoberantz, suspertzeko aukerekin





Evolución de la morosidad y cobertura




2020ko irailaren amaieran, OSR kredituaren **berankortasun-tasa** % 4,58koa zen, (-% 0,17 azken hilean). Hortaz, hobekuntzaren bideari eutsi dio, 2013an maximora iritsi zenetik. Gainera, OSR kredituaren estalduratasak % 2,02 hazi da azken hilean eta % **69,37**raino iritsi da. Momentuz, jarduera apalagoa zalantzarrietara mugitu da apur bat. Kredituaren hazkundearekin batera, zalantzarrien maila uzkurdu du mugimendu horrek. Hala ere, etorkizunean berriro gora egin lezake.

2. Euskal ekonomia uneko adierazleen arabera...

MENSUALES	jun-20	jul-20	ago-20	sep-20	oct-20
IPI (Eustat)	-17,6	-12,4	-14,5	9,8	7,9
Consumo de gasolina, gasóleo y fuelóleo™ (Cores)	-4,4	-2,5	2,7	9,2	
Matriculación de turismos (Ikerbide 1.25.3)	-6,1	34,1	14,2	-3,4	-16,6
Hipotecas Número (INE)	66,3	38,4	-6,3	0,8	
Hipotecas Importe (INE)	50,2	32,6	-10,5	1,6	
Compraventa viviendas	-12,4	-12,4	14,7	0,7	-23,8
Recaudación DDEF: Total impuestos (GV)	-13,1	-19,9	-16,6	-16,5	-12,0



3. Euskal ekonomia: txertoaren mirariaren zain



Iturria: INE, Eustat eta gure datuak

Hirugarren hiruhilekoan errebote-efektua gertatu da, bigarren hiruhilekoan hondoa jo ondoren. Hala ere, aurreikuspenen arabera, ekitaldiaren amaieran portaera okerragoa espero da, kutsatzen bilakaera negatiboaren ondorioz. Neurri murriztaileak berriro ezarri behar izan dira, eta horrek aurreikusi baino **jarduera apalago eta suspertze motel eta luzeago bat** ekarriko du. Edonola ere, ziurgabetasuna handia da, eta txertatze-kanpaina handiek talde-immunitatea lortzen lagunduko duten itzaropena piztuta dirau, hein batean, harremanen eta jarduera ekonomikoaren normalizazioa ekarriko duena.


3. Euskal ekonomia. Aurreikuspenak

Euskadi	PIB		
Panel de Previsiones		2020	2021
AFI	sep.-20	-7,5	-
Hispalink (VAB)	sep.-20	-10,6	5,7
BBVA	sep.-20	-10,5	5,8
CEPREDE	sep.-20	-9,7	8,6
Gobierno Vasco	sep.-20	-10,1	8,9
Media		-9.7	5.8
<i>Máximo</i>		<i>-7,5</i>	<i>8,9</i>
<i>Mínimo</i>		<i>-10,6</i>	<i>5,7</i>

Fuente: DEP-diciembre 2020

4. Hiruhilekoaren amaieran euroguneko enpresen konfiantza hoztu da

IHS Markit Índice PMI compuesto de la Zona euro Diciembre 2020




Fuentes: IHS Markit, Eurostat.

PMI: IHS Markit, Eurostat

Euroguneko ekonomia maila negatiboan sartu da azaroan, **zerbitzuen jarduera asko murriztu delako**. **Manufakturen ekoizpenean portaera, aldiz, desberdina da**, hazkunde-erritmo altua baitauka, Alemaniako ekonomiaren bultzadarekin. Gainontzeko herrialdeetan, jarduera guztiak behera egin zuen azaroan. Kutsatzeen bigarren olatuak enpresen konfiantzari eragin dio.


4. Suspertzea eta moteltzea kutsatzeengatik

Previsión PIB real. Consenso
Septiembre 2020



Crecimiento del PIB en España



PIB: -8,7% (a/a) en IIT2020



FMIaren arabera, ekitaldiaren hasierako konfinamendu hilabeteen ondoren hasi zen suspertzen munduko ekonomia. Hala ere, pandemiak espero baino bilakaera okerragoa izan duenez, konfinamendua eta mugikortasuna murrizteko neurriak hartu behar izan dira berriro zenbait kasutan. Horrek *stop & go* motako mugimendu bat sortu du, eta jardueraren irekitze eta hobekuntzak ekarritako susperraldiaren hasieraren ondoren, egoerak okerrera egin du kutsatzeak handitu direlako. FMIaren aurreikuspenen arabera, aurten % 4,4ko uzkuorde orokorra emango da, eta 2021ean hazkundera % 3,5ekoa izango da, Txinak azkar berrirekitiko duelako jardura eta herrialde aberatsetan pizgarriak emango direlako, koronabirusaren pandemiaren ondorioz. Nolanahi ere, suspertzea luzea, gorabeheratsua eta zalantzez beterikoa izango da.

INEren 2011Hko Espainiako ekonomiaren aurrerapenari buruzko datua bigarren hiruhilekoan -% 21,5 uzkuortetik (u/u) bigarren hiruhilekoan -% 8,7 uzkuortera igaro da (u/u). Hirugarren hiruhilekoan izan den hobekuntzaren erakusgarri da datu hori. Pandemia geldiarazteko neurrien ondorioz, jardura inoizko mailarik baxuenera murriztu zen. Neurri horiek ondoren arindu zirenean, suspertze ekonomiko arin bat gertatu zen, berriro apaldu dena bigarren olatuko kutsatzeek gora egin dutelako.

4. 2021eko susperraldia 2020ko uzkurraldia baino apalagoa izatea espero da



Iturria: Funcas

Hirugarren hiruhilekoko 2020 osorako BPGd-aren aurreikuspenaren inguruko adostasunaren arabera, **-% 11,8**koa izango da datua. Aurreko hileko aurreikuspenak baino apur bat hobea da, baina urte osorako aurreikus daitekeen uzkurtze handiaren barruan. 2020ko hondoratze horren ondorioz, **2021erako espero den suspertzea ere oso handia izango da**, nahiz eta ehunekoak ekitaldi honetakoak baino apalagoak izango diren. **Barne-eskariari** zor zaio, hein handi batean, espero den murrizketa. **Uzkurtze orokorrak** gertatuko dira bere osagai guztietan, eta kanpo-sektoreak ere hainbat puntu lapurtuko dizkio hazkundeari. 2020an ez da espero presiorik prezioetan eta 2021ean apur bat gora egingo dute.

4. Espainiako ekonomiaren hazkunde aukerak

Escenarios macroeconómicos de la economía española (2020-2021)

6 de octubre de 2020

	2019	Previsiones	
		2020	2021
PIB real por componentes de demanda			
Gasto en consumo final nacional privado (a)	0,9	-12,6	8,3
Gasto en consumo final de las AA.PP.	2,3	6,3	0,5
Formación bruta de capital fijo	2,7	-18,3	7,2
Demanda Nacional (contribución al crecimiento del PIB)	1,4	-9,7	6,1
Exportación de bienes y servicios	2,3	-22,7	11,7
Importación de bienes y servicios	0,7	-20,0	8,6
Saldo exterior (contribución al crecimiento del PIB)	0,6	-1,5	1,1
PIB real	2,0	-11,2	7,2
PIB a precios corrientes: % variación	3,4	-11,2	8,1
PRECIOS			
Deflactor del PIB	1,4	0,0	0,9
MERCADO LABORAL			
Empleo total (b)	2,3	-8,4	5,6
Tasa de paro (% población activa)	14,1	17,1	16,9

Iturria: INE Ekonomia Gaien Ministerioa

Aurtengo itxierarako aurreikuspenen arabera, **inertziak bultzatuta, familia eta enpresen kontsumoa zein inbertsioa nabarmen murriztuko dira**, esportazioen eta inportazioen beherakadaren ondorioz, kanpo-sektorearen ekarpena negatiboa izango duen testuinguru batean. Hori dela eta, prezioek tentsioa galdu eta apaldu egingo dira eta langabezia-tasa % 17 ingurura igoko da.

4. Aurreikuspenen taula. Espainia

Última actualización dic-20 [« Volver a Índice »](#)

España	PIB		IPC		PARO (EPA)	
	2020	2021	2020	2021	2020	2020
Panel de Previsiones						
AFI	-11,7	6,4	-0,3	0,7	15,7	16,7
BBVA	-11,5	6,0	-0,2	0,7	17,0	17,5
Caixabank	-11,4	6,0	-0,4	1,0	16,0	17,9
CEEM	-11,6	8,3	-0,2	0,6	18,9	18,6
CEPREDE	-10,8	8,7	-0,3	0,8	15,7	16,0
CEOE	-11,5	7,0	-0,3	0,9	15,8	18,2
Funcas	-12,0	6,7	-0,3	0,7	16,5	17,0
ICAE-UCM	-12,0	6,0	-0,2	0,9	18,7	17,5
IEE	-12,0	6,0	-0,2	0,8	15,9	18,8
Intermoney	-11,5	5,6	-0,2	1,0	15,9	16,2
CONSENSO (media)	-11,8	6,5	-0,3	0,9	16,9	17,5
Máximo	-10,8	8,7	-0,1	1,4	19,9	18,8
Mínimo	-13,0	5,0	-0,5	0,4	15,7	16,0
PRO MEMORIA						
Gobierno (oct 20)	-11,2	7,2 / 9,8	-	-	17,1	16,9/16,3
BdE (sept20)	10,5/-12,6	7,3/4,1	-0,2/-0,3	1,0/0,8	17,1/18,6	19,4/22,1
CE (noviembre 20)	-12,4	5,4	-0,2	0,9	16,7	17,9
FMI (oct 20)	-12,8	7,2	-0,3	0,8	16,8	16,8

Fuente: funcas

Euskal ekonomiaren bilakaera 2020IIIH

2020ko abenduaren 9a



kutxabank
empresas